I ARABAKO FORU ALDUNDIA DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA I

Administrazio Xedapenak

Diputatuen Kontseiluaren Foru Dekretuak

GIZARTE POLITIKAREN ETA GIZARTE ZERBITZUEN SAILA

4515

28/2010 FORU DEKRETUA, ekainaren 15eko Diputatuen Kontseiluarena, Arabako Gizarte Zerbitzuen Lurralde Kontseilua eratzen duena.

Arabako Gizarte Zerbitzuen Lurralde Kontseilua eratzea.

Gizarte Ongizaterako Lurralde Kontseiluek Eusko Legebiltzarraren Gizarte Zerbitzuei buruzko maiatzaren 20ko 6/1982 Legean dute jatorria; izan ere, lege horren 22. artikuluak lurralde historiko bakoitzerako Gizarte Ongizaterako Lurralde Kontseilu bat ezartzen du eta kontseilu horretan foru aldundiaren, udalen, eta gizarte zerbitzuen alorrean ari diren profesionalen eta erabiltzaileen erakundeen ordezkariek kide izan behar dute. Aipatutako legearen arabera, kontseilu horren osatze moduari buruzko irizpideak eta eginkizunak Gizarte Ongizaterako Euskal Kontseiluari buruz ezarri zirenak bezalakoak izango dira, betiere lege horrek foru erakundeei esleitu dizkien eskumenen baitan.

Arabako Foru Aldundiak, Gizarte Zerbitzuei buruzko Legeak xedatutakoa betez, Arabako Gizarte Ongizaterako Lurralde Kontseilua sortu zuen baita haren osaera, araubidea eta funtzionamendua arautuko dituzten arauak onartu ere, 1983ko abenduaren 5eko Diputatuen Kontseiluaren Erabakiaren bidez (martxoaren 29ko 597/1988 Foru Dekretuaren bidez zati batean aldatu egin zena).

Ondoren, Eusko Legebiltzarraren Gizarte Zerbitzuei buruzko urriaren 18ko 5/1996 Legea argitaratu eta gero, organo hori osatzen zuten eragileen parte hartze sistema berritzea beharrezkotzat jo zuen; izan ere, organo horrek duen aholku emaile izaerak gizarte zerbitzuen plangintza eta programazio lanetan ezinbestekoa den esku hartzerako bide bihurtu zuen. Horretarako Gizarte Ongizaterako Lurralde Kontseilua berriro ere arautu zuen, urtarrilaren 26ko Diputatuen Kontseiluaren 9/1999 Foru Dekretuaren bidez, azken horrek Gizarte Ongizaterako Lurralde Kontseiluaren antolamendu eta funtzionamenduari buruzko arautegia onartu baitzuen.

Era berean, Elkarteen Partaidetzarako Lurralde Kontseilua sortzea onartu zuen maiatzaren 7ko Diputatuen Kontseiluaren 32/2002 Foru Dekretuaren bitartez, Foru Administrazioaren eta Gizarte Zerbitzuen Foru Erregistroan izena emana zuten elkarteen arteko harremanak erraztu eta bultzatu nahi izan zituen, elkarteek parte hartzeko eztabaida lekua sortzearen bidez, iradokizunak eta ekimenak elkarrekin trukatzeko eta gizarte ongizate arloko politika eta ekintzak planifikatu, gauzatu eta jarraitzeko lanetan laguntza emateko.

Bestalde, Eusko Legebiltzarraren Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak gizarte zerbitzuei buruzko aurreko legeek ez bezala eskubide unibertsal subjektibotzat hartu zituen gizarte zerbitzuak. Aipatutako legeak, eskubide unibertsal subjektibo hori bermatzeko, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema sortu zuen, pertsonak gizarteratzen laguntzeko eta haien partaidetza eta autonomia sustatzeko arreta sare publikoa izan zedin.

Era berean, lege horren zioen azalpenean dakar jardun batzuk indartu behar direla: hirugarren sektorearekin elkarlanean aritzea, laguntzako sare informalei eustea, eragindako pertsonen parte hartze antolatua sustatzea eta sistemen arteko lankidetza eta koordinazio esparru batzuk (hala nola, gizarte eta osasunaren, gizarte eta lanaren, gizarte eta etxebizitzaren, gizarte eta hezkuntzaren, gizarte eta justiziaren, gizarte eta kulturaren artekoak) eratzea.

Gizarte Zerbitzuei buruzko Legeak oinarritzat hartu duen parte hartzearen printzipioaren estatu mailako oinarri juridikoa Konstituzioaren 23. artikuluan dago ezarrita; izan ere, horren arabera, “herritarrek arazo

Disposiciones Administrativas

Decretos Forales del Consejo de Diputados

DEPARTAMENTO DE POLÍTICA SOCIAL Y SERVICIOS SOCIALES

4515

DECRETO FORAL 28/2010, del Consejo de Diputados de 15 de junio, que constituye el Consejo Territorial de Servicios Sociales de Álava.

Constituir el Consejo Territorial de Servicios Sociales de Álava.

Los Consejos Territoriales de Bienestar Social, tienen sus orígenes en la Ley 6/1982, de 20 de mayo, del Parlamento Vasco sobre Servicios Sociales, cuyo artículo 22 establece, para cada uno de los Territorios Históricos, un Consejo Territorial de Bienestar Social en el cual debían de estar representados la Diputación Foral, los Ayuntamientos así como las Organizaciones de Usuarios y Profesionales que trabajasen en el campo de los Servicios Sociales. La propia ley establecía que los criterios de su composición y funciones habían de ser similares a las del Consejo Vasco de Bienestar Social, siempre dentro de las competencias que se les asigna a los Organos Forales.

La Diputación Foral de Álava, en cumplimiento de lo dispuesto por la Ley de Servicios Sociales, procedió a la creación del Consejo Territorial de Bienestar Social de Álava así como a la aprobación de las Normas Reguladoras de su Composición, Régimen y Funcionamiento, mediante Acuerdo del Consejo de Diputados de 5 de diciembre de 1.983, parcialmente modificado por Decreto Foral 597/1988, de 29 de marzo.

Posteriormente con la Ley del Parlamento Vasco 5/1996, de 18 de octubre, de Servicios Sociales, se consideró necesario renovar el sistema de participación de los distintos agentes que integraban este órgano cuya naturaleza consultiva lo convertía en un cauce de intervención imprescindible en las tareas de planificación y programación de los servicios sociales. Para ello procedió a regular nuevamente el Consejo Territorial de Bienestar Social mediante la aprobación del Decreto Foral 9/1999, del Consejo de Diputados de 26 de enero, que aprueba la Normativa Reguladora de la organización y el funcionamiento del Consejo Territorial de Bienestar Social.

También, el Decreto Foral 32/2002, del Consejo de Diputados de 7 de mayo, que aprueba la creación del Consejo Territorial de Participación Asociativa, pretendió facilitar y promover las relaciones entre la Administración y las asociaciones que figuraban inscritas en el Registro Foral de Servicios Sociales, mediante la creación de un foro de participación de las asociaciones para el intercambio de sugerencias e iniciativas y la colaboración en la planificación, ejecución y seguimiento de las políticas y actuaciones en materia de bienestar social.

La Ley del Parlamento Vasco 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales marca la diferencia con las anteriores Leyes de Servicios sociales; al reconocer a los Servicios Sociales como un Derecho Universal Subjetivo. Para garantizar este Derecho Universal Subjetivo la Ley configura un sistema vasco de Servicios Sociales concebido como una red de atención publica para la integración social, la participación y la autonomía de las personas.

Así mismo, en su Exposición de motivos la Ley constata la necesidad de reforzar la colaboración con el tercer sector, el soporte de las redes informales de apoyo, la promoción de la participación organizada de las propias personas afectadas y la configuración de espacios de cooperación y coordinación entre sistemas (sociosanitario, sociolaboral, sociohabitacional, socioeducativo, sociojudicial, sociocultural u otros).

El principio de participación en el que se basa la Ley de Servicios Sociales tiene su fundamento jurídico a nivel estatal, en el Artículo 23 de la Constitución mediante el reconocimiento del derecho de los

publikoetan parte hartzeko eskubidea dute, zuzen-zuzenean nahiz ordezkari bidez", arazo publikoen kudeaketan demokrazia politikoaren sistema eratuz. Eta Europa mailan, Europako Gizarte Gutunaren 14.2 artikuluan dago ezarrita, honakoa dakarrelako gizarte zerbitzuen onuradunen eskubideari buruz: "Europako Kontseiluko estatu kideek aipatutako eskubidea eragingarritasunez baliatuko dela bermatzeko honako konpromisoa hartu dute: gizabanakoek eta erakunde ongileek edo beste mota batzuetakoek zerbitzu horiek sortu eta mantentzeko lanetan parte har dezaten bultzatzea".

Gizarte Zerbitzuei buruzko Euskal Lege berriak III. tituluan Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren eskumen, antolamendu, kontsulta eta parte hartzearen araubidea ezarri du. Partaidetza demokratikoa gizarte zerbitzuen arloko aurreko lege guztien oinarrizko printzipioa izan da; baina azken horretan parte hartzearen printzipioa unibertsal bihurtzearen alde egin da, legeak osatu egiten duelako parte hartzeko eredu hori beste mekanismo batzuen bitartez, hala gizarte zerbitzuetako zerbitzu eta zentroen arloan nola arlo orokorrean, biztanleria osoaren parte hartzerako prozesuak sustatuz.

Gizarte zerbitzuei buruzko aurreneko legea argitaratu zenean, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemak gizarte ongizaterako kontseiluak sortzea aurreikusi zuen, parte hartze demokratikoa bermatuko zuten erakundeak baitziren. Horiek horrela, Gizarte Zerbitzuei buruzko Euskal Lege berriak Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseilua eratu zuen, orduko Gizarte Ongizaterako Euskal Kontseiluaren antzeko ezaugarri eta eginkizunak izango zituena. Beste alde batetik, lege horren 49. artikuluan jasota dago lurralde historiko bakoitzean gizarte zerbitzuen lurralde kontseiluak eratuko dituztela, nork bere eskumen eremuko gizarte zerbitzuei buruzko kontsultarako eta parte hartzerako organo gisa.

Kontseilu horien osaerak gizarte zerbitzuen eremuan esku hartzen duten gizarte eragileen parte hartzea bermatu beharko du, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko gainerako herri administrazioen ordezkaritza ere, kasu bakoitzean dagokionarena. Halaber, gizonezkoen eta emakumezkoen artean ordezkaritza orekatua egon dadin zaindu beharko da.

Arabako Gizarte Zerbitzuen Lurralde Kontseilua sortu eta martxan jartzeko asmoak gure gizartea denon artean eraikitzeko orduan arabarrak inplikatzeko beharrizanari, batez ere, erantzuten dio; aurreko hori esparru inklusibo batean, herritarren parte hartzea sustatu eta bultzatuko duten bideetatik sakontzeko aukera izan dezagun. Horrez gain, guztiontzat interesgarriak diren gaiei buruzko jardun demokratikoak gauzatzeko erronka ere bada.

Horregatik, Gizarte Politikaren eta Gizarte Zerbitzuen Saileko foru diputatuak proposatuta, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Administrazio Kontseilua jakinaren gainean jarrita eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu eta gero, hauxe

XEDATU DUT

Lehenengoa. Arabako Gizarte Zerbitzuen Lurralde Kontseilua sortu eta arautzen duen arautegia, foru dekretu honen eranskinean jasota dagoena, onartzea.

Bigarrena. Foru dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Hirugarrena. Arabako Foru Aldundiaren Gizarte Politikaren eta Gizarte Zerbitzuen Sailaren foru diputatuari baimena ematea, foru dekretu hau garatzeko, interpretatzeko eta betearazteko behar diren xedapenak emateko.

Laugarrena. Foru dekretu hau ALHAOn argitaratzeko agintzea.

ERANSKINA

1. artikulua.- Xedea

1. Foru dekretu honen bidez Arabako Gizarte Zerbitzuen Lurralde Kontseilua sortu eta arautzen da; beraz, dekretu honetan xedatutakoa aplikatuko zaio. Haren funtzionamendu organoak honakoak izango dira: Osoko Bilkura, Batzorde Iraunkorra eta, hala badagokio, sektore kontseiluak eta batzorde bereziak.

2. Arabako Foru Administrazioaren kide anitzeko organo aholku emailea da eta, era berean, gizarte zerbitzuen plangintza, funtzionamendu eta ebaluaziorako parte hartze organoa ere bada. Hain

ciudadanos "a participar en los asuntos públicos directamente o por medio de representantes libremente elegidos", articulándose un sistema de democracia política en la gestión de los asuntos públicos. Y a nivel europeo, en Artículo 14.2 de la Carta Social Europea relativo a Derecho a los beneficios de los servicios sociales que establece que "los Miembros del Consejo de Europa, para garantizar el ejercicio efectivo del mencionado derecho se comprometen: A estimular la participación de los individuos y de las organizaciones benéficas o de otra clase en la creación y mantenimiento de tales servicios".

La nueva Ley Vasca de Servicios Sociales procede a regular en su título III el régimen competencial, organizativo, consultivo y de participación en el Sistema Vasco de Servicios Sociales. La participación democrática ha sido un principio inspirador de todas las anteriores leyes de servicios sociales; destacando en esta última la universalización del principio de participación al establecer mecanismos, tanto en el ámbito de los servicios y centros de servicios sociales como en el ámbito general, de participación mediante la promoción de procesos participativos abiertos al conjunto de la población.

Desde la primera ley de Servicios Sociales, el Sistema Vasco de Servicios Sociales prevé la creación de un órgano garante de la participación democrática, los Consejos de Bienestar Social. Así la nueva Ley Vasca de Servicios Sociales, constituye el Consejo Vasco de Servicios Sociales, con características y funciones similares a las ejercidas hasta el presente por el Consejo Vasco de Bienestar Social. Por su parte, el artículo 49 de la misma, señala que en cada Territorio Histórico, determinaran la constitución de Consejos Territoriales de Servicios Sociales como órganos de carácter consultivo y de participación en relación con los servicios sociales dentro de su ámbito competencial.

La composición de estos Consejos garantizará la participación de los agentes sociales que intervienen en el ámbito de los servicios sociales, así como la representación del resto de las administraciones Públicas Vascas, que en cada caso correspondan. Así mismo, se velará por alcanzar una representación equilibrada de mujeres y hombres

La creación y puesta en marcha del Consejo Territorial de Servicios Sociales de Álava responde de manera especial a la necesidad de implicar a la ciudadanía alavesa en la construcción colectiva de nuestra sociedad, en un marco inclusivo que nos permita profundizar en cauces que impulsen y potencien la participación ciudadana. Es además un reto para el desarrollo de prácticas democráticas en torno a temas de interés común.

En su virtud, a propuesta de la Diputada de Política Social y Servicios Sociales, habiendo sido informado el Consejo de Administración del Instituto Foral de Bienestar Social y previa deliberación del Consejo de Diputados en sesión celebrada en el día de hoy,

DISPONGO

Primero. Aprobar la normativa que crea y regula el Consejo Territorial de Servicios Sociales de Álava, que se contiene en el Anexo al presente Decreto Foral.

Segundo. El presente Decreto Foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el BOTHA.

Tercero. Se autoriza a el/la Diputado/a Foral del Departamento de Política Social y Servicios Sociales de Álava para dictar cuantas disposiciones sean necesarias para el desarrollo, interpretación y ejecución del presente Decreto Foral.

Cuarto. Ordenar su publicación en el BOTHA.

ANEXO

Artículo 1.- Objeto

1. Mediante el presente Decreto Foral se crea y se regula el Consejo Territorial de Servicios Sociales de Álava, con sede en Vitoria-Gasteiz, el cual se regirá por lo dispuesto en este Decreto, siendo sus órganos de funcionamiento, el Pleno, la Comisión Permanente, y en su caso, los Consejos Sectoriales y las Comisiones Especiales.

2. Éste se constituye como órgano colegiado consultivo de la Administración Foral de Álava y de participación del conjunto de la población, y en particular de las entidades, organizaciones repre-

zuzen ere, herritar guztiek eta batez ere gizarte zerbitzuetako erabiltzaile eta profesionalak ordezkatzen dituzten erakundeek eta ekimen pribatuko erakundeek hartuko dute parte, Arabako Foru Aldundiaren Gizarte Politikaren eta Gizarte Zerbitzuen Sailak aginduta dituen eskumenak planifikatzeko, martxan jartzeko eta ebaluatzeko.

2. Artikulua.- Atxikipena

Arabako Gizarte Zerbitzuen Lurralde Kontseilua Gizarte Politikaren eta Gizarte Zerbitzuen Sailari atxikitzen zaio.

3. artikulua.- Osoko Bilkuraren osaera

1. Kontseiluaren Osoko Bilkuraren osaera honako hau izango da:

A. Administrazio publikoaren aldetik:

– Gizarte Politikaren eta Gizarte Zerbitzuen Saileko foru diputatu titularra, lehendakaria izango dena.

– Gizarte Politikaren eta Gizarte Zerbitzuen zuzendaria, lehendakariordea izango dena.

– 4 kide, Arabako Foru Aldundia ordezkatuz.

– Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen zuzendaria.

– Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen 4 zuzendariorde, Adinekoen atalekoa, Ezinduen atalekoa, Esku hartze Sozialeko atalekoa eta Haurren eta Familiaren atalekoa.

– 3 kide, Arabako udalak ordezkatuz.

B. Erabiltzaileen elkarteen eta erakundeen aldetik:

– Kide 1, haurren eta familiaren arloan lurralde mailan aritzen diren gizarte ekimen eta izaerako elkarteak eta erakundeak ordezkatuz.

– Kide 1, etxean tratu txarrak eta sexu erasoak jasan dituzten emakumeekin lurralde mailan aritzen diren elkarteak eta erakundeak ordezkatuz.

– 3 kide, gorputz, zentzumen edota adimen ezintasunen bat duten pertsonekin lurralde mailan aritzen diren gizarte ekimen eta izaerako elkarteak eta erakundeak ordezkatuz.

– Kide 1, elkartegintzakoa den Adinekoen Kontseilua ordezkatuz.

– Kide 1, gizarte bazterketaren arloan lurralde mailan aritzen diren gizarte ekimen eta izaerako elkarteak eta erakundeak ordezkatuz.

– Kide 1, adimen gaixotasunen arloan aritzen diren elkarteak eta erakundeak ordezkatuz.

– Kide 1, boluntarioak ordezkatuz.

C. Profesionalen aldetik:

– Kide 1, Arabako enpresa erakundeak ordezkatuz.

– Kide 1, Arabako erakunde sindikalak ordezkatuz.

– Kide 1, Arabako Gizarte Laneko Diplomadunen eta Gizarte Laguntzaileen Elkargo Ofiziala ordezkatuz.

– Kide 1, Arabako egoitzako Gizarte Hezitzaileen Euskadiko Elkargo Ofizialeko ordezkatuz.

Gizarte Politikaren eta Gizarte Zerbitzuen Saileko foru diputatu titularrak proposatu eta Aldundiak aukeratzen duen funtzionarioa izango da Kontseiluaren Osoko Bilkurako idazkaria. Hura ez dagoenean, berriz, titularrak aukeratutako beste funtzionario batek hartuko du haren lekua.

2. Era berean, Kontseiluaren Osoko Bilkura osatzerakoan gizonezkoen eta emakumezkoen orekaren alde egingo da.

4. artikulua.- Arabako Gizarte Zerbitzuen Lurralde Kontseiluko kideak

Hurrengo irizpideei jarraituz aukeratuko dira kideak, eta Diputatuen Kontseiluak izendatuko ditu:

A) Gizarte Politikaren eta Gizarte Zerbitzuen Saileko foru diputatuak Arabako Foru Aldundia ordezkatzen duten kideak proposatuko ditu.

B) Gizarte Politikaren eta Gizarte Zerbitzuen Saileko foru diputatuak Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea ordezkatzen duten kideak proposatuko ditu.

C) Euskadiko Udalen Elkarteak (EUDEL) Arabako udalak ordezkatzen dituzten kideak aukeratuko ditu, udaletako kargu hautetsien artean.

sentativas de personas usuarias y profesionales de los servicios sociales y de las entidades de iniciativa privada, en la planificación, funcionamiento y evaluación de las competencias que tengan asignadas el Departamento de Política Social y Servicios Sociales de la Diputación Foral de Álava.

Artículo 2.- Adscripción

El Consejo Territorial de Servicios Sociales de Álava se adscribe al Departamento de Política Social y Servicios Sociales.

Artículo 3.- Composición del Pleno

1. La composición del Pleno del Consejo será la siguiente:

A. Por parte de la Administración Pública:

– El/La Diputado/a Foral titular del Departamento de Política Social y Servicios Sociales, que será su Presidente/a.

– El/La Directora/a de Política Social y Servicios Sociales, que será su Vicepresidente/a.

– 4 vocales en representación Diputación Foral de Álava.

– El/La Directora/a del Instituto Foral de Bienestar Social.

– 4 Subdirectores/as del Instituto Foral de Bienestar Social que representan a las áreas de Personas Mayores, Personas con Discapacidad, Intervención Social y Menor y Familia.

– 3 vocales en representación de los Ayuntamientos de Álava.

B. Por parte de las organizaciones de asociaciones de usuarios y usuarias:

– 1 vocal en representación de Asociaciones y Entidades de iniciativa y carácter social, de ámbito territorial, relacionadas con Menores y Familia

– 1 vocal en representación de las Asociaciones y Entidades de ámbito territorial que intervienen con mujeres víctimas de maltrato doméstico y agresiones sexuales.

– 3 vocales en representación de Asociaciones y Entidades de iniciativa y carácter social, de ámbito territorial, relacionadas con las personas afectadas por algún tipo de discapacidad física, sensorial e intelectual.

– 1 vocal en representación del Consejo de Personas Mayores perteneciente al movimiento asociativo.

– 1 vocal en representación de las Asociaciones y Entidades de iniciativa y carácter social, de ámbito Territorial, relacionadas con la exclusión social.

– 1 vocal en representación de Asociaciones y Entidades relacionadas con la enfermedad mental.

– 1 vocal en representación del voluntariado.

C. Por parte de los/las profesionales:

– 1 representante de las organizaciones empresariales de Álava

– 1 representante de las organizaciones sindicales de Álava.

– 1 representante del Colegio Oficial de Diplomados en Trabajo Social y Asistentes Sociales de Álava.

– 1 representante del Colegio Oficial de Educadores y Educadoras Sociales del País Vasco de la sede de Álava.

Actuará como Secretario/a del Pleno del Consejo el funcionario/a de la Diputación, que sea designado/a por la misma a propuesta del Diputado/a Foral, titular de Departamento de Política Social y Servicios Sociales, quien será sustituido/a, en caso de ausencia, por otro funcionario/a designado/a de igual forma por el titular.

2. Asimismo en la composición del Pleno del Consejo se tenderá al equilibrio entre hombres y mujeres.

Artículo 4.- Vocales del Consejo Territorial de Servicios Sociales de Álava

La designación de los/las vocales se efectuará de la siguiente manera, siendo nombrados por el Consejo de Diputados/as:

A) Los/las vocales representantes de la Diputación Foral serán propuestos por el/la Diputado/a Foral de Política Social y Servicios Sociales.

B) Los/las vocales representantes del Instituto Foral de Bienestar Social serán propuestos por el/la Diputado/a Foral de Política Social y Servicios Sociales.

C) Los/las vocales representantes de los Ayuntamientos de Álava serán designados de entre los cargos electos de los mismos por la Asociación de Municipios Vascos (EUDEL).

D) Gizarte ekimen eta izaerako elkarte eta erakundeek, baldintzak betetzekotan, Arabako Gizarte Zerbitzuen Lurralde Kontseiluko kide izan nahi badute, beren hautagaiak proposatuko dituzte.

E) Elkartegintzakoa den Adinekoen Kontseiluak aukeratuko du bera ordezkatzen duen kidea.

F) Arabako Gizarte Laneko Diplomadunen eta Gizarte Laguntzaileen Elkargo Ofizialak aukeratuko du bera ordezkatzen duen kidea.

G) Arabako egoitzako Gizarte Hezitzaileen Euskadiko Elkargo Ofizialak aukeratuko du bera ordezkatzen duen kidea.

H) Arabako Lurralde Historikoan ordezkaritza handiena duten erakunde sindikalek aukeratuko dute ordezkari sindikala.

I) Arabako Lurralde Historikoan ordezkaritza handiena duten enpresa erakundeek aukeratuko dute beren ordezkaria.

5. artikulua.- Karguen iraunaldia.

1. Laugarren artikuluaren A, B eta C idatz zatietan aipatzen diren kideen karguaren iraupena haiek ordezkatzen duten erakundeko agintaldiak irauten duen bera izango da.

2. D eta E idatz zatietan aipatzen diren kideen karguaren iraupena urtebetekoa izango da, elkarte eta erakundeak txandakatzen joateko aukera egon dadin.

3. Artikulu beraren F, G, H eta I idatz zatietan aipatzen diren kideen karguaren iraupena hiru urtekoa izango da. Agintaldia bukatzean berriro aukera ditzakete, behin baino ez, edo, agintaldia bukatu aurretik, ordeztu ditzakete.

6. artikulua.- Osoko Bilkuraren eginkizunak

Hauexek izango dira Gizarte Zerbitzuen Lurralde Kontseiluaren Osoko Bilkuraren eginkizunak:

a) Gizarte zerbitzuen egoera eta aurrerabidea ezagutzea eta aztertzea.

b) Arabako Lurralde Historikoaren gizarte zerbitzuei lotutako gaietan proposamenak egitea.

c) Gizarte Politikaren eta Gizarte Zerbitzuen Sailari aholku ematea, aztertzea agindu dioten gaien inguruan.

d) Gizarte Politikaren eta Gizarte Zerbitzuen Sailaren urteko aurrekontua ezagutzea eta horren gaineko informazioa jasotzea.

e) Gizarte Zerbitzuen Lurralde Kontseiluak Gizarte Politikaren eta Gizarte Zerbitzuen Sailari aurkeztuko dion urteko memoria onartzea.

f) Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legeari jarraiki sortuko diren udal kontseiluei aholkuak eta babesa ematea.

g) Arabako Lurralde Historikoko gizarte zerbitzuen plan estrategiko, sektore plan eta plan bereziei buruzko informazioa jasotzea.

h) Arabako Gizarte Zerbitzuen Lurralde Kontseiluaren funtzionamenduari buruzko arautegia egitea eta aldatzea.

i) Legeek edo arautegiek agindutako beste edozein eginkizun.

7. artikulua.- Batzorde Iraunkorraren osaera

1. Batzorde Iraunkorraren osaera honako hau izango da:

a) Gizarte Ongizaterako Lurralde Kontseiluaren lehendakaria, Batzorde Iraunkorrarena ere izango dena.

b) Kontseiluaren lehendakariordea, Batzorde Iraunkorraren lehendakari arituko dena hura ez dagoenean.

c) Bi kide, Arabako Foru Aldundia ordezkatuz.

d) Kide bat, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea ordezkatuz.

e) Kide bat, udalak ordezkatuz.

f) Lau kide, erabiltzaileen erakundeak ordezkatuz.

g) Kide bat, profesionalak ordezkatuz.

2. Batzorde Iraunkorreko kide guztiek Kontseiluaren Osoko Bilkurako kide izan beharko dute nahitaez.

3. Era berean, Batzorde Iraunkorra osatzerakoan gizonezkoen eta emakumezkoen arteko berdintasunaren alde egingo da.

8. artikulua.- Batzorde Iraunkorraren eginkizunak

Batzorde Iraunkorrak hurrengo eginkizunak izango ditu:

a) Irizpenak egitea, bere ekimenez edo Biltzar Nagusiek zein Arabako Foru Aldundiaren Diputatuen Kontseiluak eskatuta.

D) Las Asociaciones y Entidades de iniciativa y carácter social que, reuniendo las condiciones, deseen estar presentes en el Consejo Territorial de Servicios Sociales de Álava propondrán sus candidatos/as.

E) El/la representante del Consejo de Personas Mayores perteneciente al movimiento asociativo será designado por éste.

F) El/la representante del Colegio Oficial de Diplomados en Trabajo Social y Asistentes Sociales de Álava serán designado por éste.

G) El/la representante del Colegio Oficial de Educadores y Educadoras Sociales del País Vasco de la sede de Álava será designado por éste.

H) El/la representante sindical será designados por las Organizaciones Sindicales mayoritarias en el Territorio Histórico de Álava.

I) El/la representante de organizaciones empresariales será designado por las Organizaciones Empresariales mayoritarias en el Territorio Histórico de Álava.

Artículo 5.- Permanencia en el cargo

1. La duración del cargo de los/las vocales a que se refiere el apartado A, B y C del artículo cuarto será la misma que la de los respectivos períodos de mandato en la institución que representan.

2. La duración del cargo de los/las vocales a que se refiere el apartado D, E podrá ser de un año, permitiéndose de esta manera la rotación entre las diferentes Asociaciones y Entidades.

3. La duración del cargo de los/las vocales a que se refiere el apartado F, G H y I del mismo artículo será de tres años, pudiendo ser reelegidos al término de su mandato por una sola vez, así como sustituidos antes de finalizarlo.

Artículo 6.- Funciones del Pleno

Serán funciones del Pleno del Consejo Territorial de Servicios Sociales:

a) Conocer y analizar la situación de las prestaciones de los Servicios Sociales y su proyección en el futuro.

b) Elevar propuestas en las materias concernientes a los Servicios Sociales del Territorio Histórico de Álava.

c) Asesorar al Departamento de Política Social y Servicios Sociales en aquellas cuestiones que sean sometidas a su consideración.

d) Conocer y ser informados del presupuesto anual del Departamento de Política Social y Servicios Sociales.

e) Aprobar la memoria anual que el Consejo Territorial de Servicios Sociales presentará al Departamento de Política Social y Servicios Sociales.

f) Asesorar y apoyar a los Consejos Municipales que al amparo de la Ley 12/2008 de servicios sociales, se creen.

g) Ser informados del Plan Estratégico de Servicios Sociales del Territorio Histórico de Álava, Plan sectorial y Planes Especiales.

h) Elaboración y modificación del Reglamento de funcionamiento del Consejo Territorial de Servicios Sociales de Álava.

i) Cualesquiera otras que le atribuyan las Leyes o Reglamentos

Artículo 7.- Composición de la Comisión Permanente

1. La composición de la Comisión Permanente será la siguiente:

a) El/La Presidente/a del Consejo Territorial de Bienestar Social que lo será también de la Comisión Permanente.

b) El/La Vicepresidente/a del Consejo, que actuará de Presidente/a de la Comisión Permanente en ausencia del mismo.

c) Dos vocales representantes de la Diputación Foral de Álava.

d) Un/a vocal representante del Instituto Foral de Bienestar Social.

e) Un/una vocal representante de los Ayuntamientos.

f) Cuatro vocales representantes de las organizaciones de usuarios.

g) Un/una vocal representante de los profesionales.

2. Todos los/las vocales que integran la Comisión Permanente habrán de ser necesariamente miembros del Pleno del Consejo.

3. Asimismo en la composición de la Comisión Permanente se tenderá a la paridad entre hombre y mujer.

Artículo 8.- Funciones de la Comisión Permanente

La Comisión Permanente tendrá las siguientes funciones:

a) Elaborar dictámenes por iniciativa propia o a instancias de las Juntas Generales, o del Consejo de Diputados/as de la Diputación Foral de Álava.

b) Lehendakariari aholkuak ematea, Osoko Bilkuraren bileren gai zerrenda erabakitzeko orduan.

c) Batzorde berezien txostenak, irizpenak eta proposamenak aztertzea, ondoren, bidezkoa balitz, Osoko Bilkurari aurkezteko.

d) Batzorde berezietan eta Eusko Legebiltzarraren Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legea betez eratuko diren gizarte zerbitzuen udal kontseiluetan eztabaidatutako gaiak zein diren jakitea eta, hala badagokio, horren berri ematea.

e) Kontseiluaren jarduerei buruzko urteko memoriaren proiektua idaztea, Osoko Bilkuran onar dadin.

f) Arabako Gizarte Zerbitzuen Lurralde Kontseiluaren Osoko Bilkurak haren esku utziko dituen txostenak egitea.

g) Arabako Gizarte Zerbitzuen Lurralde Kontseiluaren Osoko Bilkurak onartuko duen funtzionamenduari buruzko arautegiaren bidez emango zaion edo Osoko Bilkurak berak haren esku utziko duen beste edozein eginkizun.

9. artikulua.- Gizarte zerbitzuen sektore kontseiluak

1. Gizarte zerbitzuen sektore kontseilu hauek sortu ahal izango dira:

– adinekoena

– ezinduena

– gizarteratzekoa

– haur, gazte eta familiena.

– gizarte zerbitzuen arloan enpleguaren kalitatea sustatu eta prestakuntza eta trebakuntza hobetzekoa.

2. Sektore kontseiluen funtzionamenduari buruzko arautegian ezarrita egongo dira horiek nola sortu, nola osatu, zein eginkizun esleitu eta zein funtzionamendu arau ezarri behar diren. Kontseiluaren Osoko Bilkurak onartuko du aipatutako arautegia eta sektore kontseiluek ezin izango dute Kontseiluari berari dagozkion eskumenak baino gehiago hartu.

3. Gizarte zerbitzuen sektore batzorde guztietan genero ikuspuntua eta kolektibo jakinei buruzko beste zeharkako alderdi batzuk kontuan hartuko direla bermatuko da, beren programen bidez eta beren eguneroko lanaren bidez. Horretarako, berariazko organo edo erakundeei aholkularitza eta laguntza eska diezazkiekete.

10. artikulua.- Batzorde bereziak

Batzorde berezien funtzionamenduari buruzko arautegian ezarrita egongo dira horiek nola sortu, nola osatu, zein eginkizun esleitu eta zein funtzionamendu arau ezarri behar diren. Kontseiluaren Osoko Bilkurak onartuko du aipatutako arautegia eta batzorde bereziek ezin izango dute Kontseiluari berari dagozkion eskumenak baino gehiago hartu. Behin betiko edo behin-behinean eratu ahal izango dira.

11. artikulua.- Arautegia

Arabako Gizarte Zerbitzuen Lurralde Kontseiluaren Osoko Bilkurari dagokio Arabako Gizarte Zerbitzuen Lurralde Kontseiluaren funtzionamenduari buruzko arautegia egin eta aldatzea. Bestalde, Gizarte Politikaren eta Gizarte Zerbitzuen Saileko foru diputatuak onartu behar du arautegi hori.

12. artikulua.- Bileren maiztasuna

1. Kontseiluaren Osoko Bilkura sei hilean behin gutxienez bilduko da, baita lehendakariak bilera deia egiten duenean ere.

2. Batzorde Iraunkorra hiru hilean behin gutxienez bilduko da, baita lehendakariak bilera deia egiten duenean ere.

3. Sektore kontseiluak funtzionamenduari buruzko arautegian zehaztutako aldietan bilduko dira.

4. Batzorde bereziak funtzionamenduari buruzko arautegian zehaztutako aldietan bilduko dira.

13. artikulua.- Araubide osagarria

Foru dekretu honetan eta barne arautegian, Arabako Gizarte Zerbitzuen Lurralde Kontseiluaren barne funtzionamenduaz arautu ez den guztirako, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen II. tituluko II. kapituluan xedatutakoari jarraituko zaio.

b) Asesorar a la Presidencia para la fijación del Orden del Día de las reuniones del Pleno.

c) Analizar los informes, dictámenes y propuestas de las Comisiones Especiales para su posterior tramitación al Pleno si procede.

d) Conocer e informar, en su caso, los asuntos debatidos en las Comisiones Especiales y en los Consejos Municipales de Servicios Sociales que se constituyan a tenor de la Ley del Parlamento Vasco 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales.

e) Redactar el proyecto de memoria anual de las actividades del Consejo para su aprobación en el Pleno.

f) Elaboración de los Informes que le delegue el Pleno del Consejo Territorial de Servicios Sociales de Álava.

g) Cualesquiera otras que le atribuyan el Reglamento de funcionamiento que apruebe el Pleno del Consejo o delegue el Pleno del Consejo Territorial de Servicios Sociales de Álava.

Artículo 9.- Consejos Sectoriales de servicios sociales

1. Se podrán crear los siguientes Consejos Sectoriales de servicios sociales,

– de las personas mayores:

– de discapacidad

– de inclusión.

– de infancia, juventud y familia.

– de calidad en el empleo y mejora de la formación y la cualificación en el ámbito de los servicios sociales.

2. Su creación, composición, funciones y normas de funcionamiento serán reguladas a través del Reglamento de funcionamiento de estos Consejos Sectoriales, que apruebe el Pleno del Consejo y no podrán exceder el ámbito de competencias que le corresponden al propio Consejo.

3. La incorporación de la perspectiva de género y de otros aspectos de transversalidad referidos a colectivos específicos deben garantizarse en todas las Comisiones Sectoriales de Servicios Sociales a través de sus programas y su actuación diaria. Para ello podrán requerir el asesoramiento y apoyo de los órganos o entidades específicas.

Artículo 10.- Las Comisiones Especiales

La creación, composición, funciones y normas de funcionamiento de las Comisiones Especiales, serán reguladas a través del Reglamento de funcionamiento que apruebe el Pleno del Consejo y no podrán exceder el ámbito de competencias que le corresponden al propio Consejo. Estas podrán ser constituidas de modo permanente o coyuntural.

Artículo 11.- Reglamento

Corresponderá al Pleno del Consejo Territorial de Servicios Sociales de Álava la elaboración y modificación del Reglamento de Funcionamiento del Consejo Territorial de Servicios Sociales de Álava, que deberá ser aprobado por el/la Diputado/a Foral del Departamento de Política Social y Servicios Sociales.

Artículo 12.- Periodicidad de las reuniones

1. El Pleno del Consejo se reunirá, cuando menos, una vez al semestre, así como cuando lo convoque su Presidente/a.

2. La Comisión Permanente se reunirá trimestralmente así como cuando la convoque su Presidente/a.

3. Los Consejos Sectoriales se reunirán según se especifique en el Reglamento de Funcionamiento.

4. Las Comisiones Especiales se reunirán según se especifique en el Reglamento de Funcionamiento.

Artículo 13.- Régimen supletorio

En todo lo no regulado sobre el funcionamiento interno del Consejo Territorial de Servicios Sociales de Álava, tanto por el presente Decreto Foral, como por su Reglamento Interno, será de aplicación lo previsto en el Capitulo II del Titulo II de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Publicas y Procedimiento Administrativo Común.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabeturik gelditzen dira Lurralde Historiko honetako Gizarte Ongizaterako Lurralde Kontseiluaren antolamendu eta funtzionamenduari buruzko arautegia onartzen duen 9/1999 Foru Dekretua, urtarrilaren 26ko Diputatuen Kontseiluarena; Elkarteen Partaidetzarako Lurralde Kontseiluaren eraketa onartzen duen 32/2002 Foru Dekretua, maiatzaren 7ko Diputatuen Kontseiluarena, eta foru dekretu honetan xedatutakoaren aurka egon litekeen beste edozein xedapen.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko ekainaren 15a.– Diputatu nagusia, XABIER AGIRRE LÓPEZ.– Gizarte Politikaren eta Gizarte Zerbitzuen Saileko foru diputatua, COVADONGA SOLAGUREN SANTAMARÍA.– Gizarte Politika eta Gizarte Zerbitzuen zuzendaria, AMPARO MAIZTEGUI ALDAY.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Quedan derogados el Decreto Foral 9/1999, del Consejo de Diputados de 26 de enero, que aprueba la Normativa Reguladora de la organización y el funcionamiento del Consejo Territorial de Bienestar Social en este Territorio Histórico; y el Decreto Foral 32/2002, del Consejo de Diputados de 7 de mayo, que aprueba la creación del Consejo Territorial de participación asociativa y cualquier otra disposición que se oponga a lo dispuesto en el presente Decreto Foral.

Vitoria-Gasteiz, a 15 de junio de 2010.– Diputado General, XABIER AGIRRE LÓPEZ.– Diputada de Política Social y Servicios Sociales, COVADONGA SOLAGUREN SANTAMARÍA.– Directora de Política Social y Servicios Sociales, AMPARO MAIZTEGUI ALDAY.

Diputatuen Kontseiluaren Erabakiak

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

4517

385/2010 ERABAKIA, ekainaren 22ko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, Arabako Foru Aldundiak Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren Kontseilu Aholku-Emailean duen ordezkaritza berritzen da.

Foru gobernu berria (2007/2011 agintaldia) eratu eta osatu izanaren ondorioz, irailaren 25eko 870/2007 Erabakiaren bidez, organismo, sozietate eta entitateen gobernu eta administrazio organoetan, aldundiak legez parte hartu behar duenetan, aldundiak izango dituen ordezkariak izendatu ziren, Arabako Foru Aldundiaren Antola keta, Funtzionamendua eta Lege Araubidea arautzen duen abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauaren 8. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Bukatzeko, Erakunde publikoen jabetzako datu pertsonalen fitxategiaren eta Datuak Babesteko Euskal Agentzia sortzeko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 16. artikuluak xedatutakoarekin bat etorriz, eta hiru lurralde historikoen unean uneko erabakiekin bat etorriz, egoki da Agentziaren Aholku Batzorderako ordezkaria izendatzea.

Horregatik, Diputatu nagusiaren proposamenez, eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran aztertu ondoren, hau

ERABAKI DUT

Lehenengo: José Javier Aguirre Busteros izendatzea, Arabako Foru Aldundiko ordezkari bezala ondoko Organismoan parte har dezan (izendatzean, foru administrazioak partaidetutako Erakundeen Erregistroko agindu zenbakia adieraziko da):

250 Datuen Babeserako Euskal Agentziaren Kontseilu Aholku-Emailea (hiru lurralde historikoek hala erabakita, eta 2010eko abuztuaren lehenatik 2012ko urtarrilaren 31ra arte doan epealdirako)

Bigarrena: Erabaki honek onartzen den egunetik bertatik aurrera izango du indarra, ALHAOn argitaratu ala ez.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko ekainaren 22a.– Diputatu nagusia, XABIER AGIRRE LÓPEZ.– Lege Araubidearen Zuzendaria, JESÚS MARÍA ELORZA FERNÁNDEZ.

Acuerdos del Consejo de Diputados

DEPARTAMENTO DE DIPUTADO GENERAL

4517

ACUERDO 385/2010, del Consejo de Diputados de 22 de junio, que renueva la representación de esta Diputación Foral en el Consejo Consultivo de la Agencia Vasca de Protección de Datos.

Como consecuencia de la constitución y configuración del nuevo Gobierno Foral (legislatura 2007/2011) se procedió mediante el Acuerdo 870/2007, de 25 de septiembre, a la designación de representantes en los órganos de gobierno y administración de los Organismos, Sociedades y Entidades en los que está prevista legalmente la participación de la Administración Foral, según lo dispuesto en el artículo 8 de la Norma Foral 52/1992, de 18 de diciembre, de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de la Diputación Foral de Álava.

Finalmente, de conformidad con lo dispuesto en el art. 16 de la Ley 2/2004, de 25 de febrero, de Ficheros de Datos de Carácter Personal de Titularidad Pública y de Creación de la Agencia Vasca de Protección de Datos, y con los acuerdos adoptados en su momento por los tres Territorios Históricos, procede designar en el Comité Consultivo de la Agencia al representante de los mismos.

En su virtud, a propuesta del Diputado General, y previa deliberación del Consejo de Diputados en sesión celebrada en el día de hoy,

ACUERDO

Primero: Designar a José Javier Aguirre Busteros, para que, en representación de la Diputación Foral de Álava, forme parte del siguiente Organismo (con indicación del número de orden del Registro de Entidades participadas por la Administración Foral):

250 Consejo Consultivo de la Agencia Vasca de Protección de Datos (de común acuerdo entre los tres Territorios Históricos y durante el periodo comprendido entre el 1 de agosto de 2010 y el 31 de enero de 2012)

Segundo: El presente Acuerdo entrará en vigor el día de su aprobación sin perjuicio de su publicación en el BOTHA.

Vitoria-Gasteiz, a 22 de junio de 2010.– Diputado General, XABIER AGIRRE LÓPEZ.– Director de Régimen Jurídico, JESÚS MARÍA ELORZA FERNÁNDEZ.

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

4533

391/2010 ERABAKIA, ekainaren 22ko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, Zerga Premiazko Araugintzako 1/2010 Dekretua Arabako Foru Aldundiaren, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen eta Gazteriaren Foru Erakundearen eragiketa ekonomikoetara egokitzeko beharrezko eragiketak egitea onartzen da.

Urtarrilaren 26ko Diputatuen Kontseiluak, Zerga Premiazko Araugintzako 1/2010 Dekretuaren bidez, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergako, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergako, Balio Erantsiaren gaineko Zergako eta

DEPARTAMENTO DE HACIENDA, FINANZAS Y PRESUPUESTOS

4533

ACUERDO 391/2010, del Consejo de Diputados de 22 de junio, que aprueba las operaciones necesarias para la adaptación del Decreto Normativo de Urgencia Fiscal 1/2010 a las operaciones económicas de la Diputación Foral de Álava, Instituto Foral de Bienestar Social e Instituto Foral de la Juventud.

El Consejo de Diputados, el 26 de enero, por Decreto Normativo de Urgencia Fiscal 1/2010, efectuó diversas modificaciones en la normativa del Impuesto sobre la Renta de no Residentes, Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados,